BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Batzar Nagusiek eskaria egin deutsie Barakaldoko Udalari, ez daian Loiolako urtegiko ura erabili, kontsumorako egokitasunari buruzko berme guztiak beteten ez diranean

Bilbon, 2014ko ekainaren 30ean.

Gaur, astelehenean, ekainaren 30ean, alkartu dan Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordeak, Euzko Abertzaleak (EAJ-EAJ-PNV) taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat onartu dau, EH Bildu taldeak sartutako zuzenketa-eske bigaz, Barakaldoko Udalari eskaria egiteko, prekauzino printzipioa aplikau daian eta Loiolako urtegiko ura ez dala erabiliko bermatu daian, Udal hori dalako horretarako eskumena daukan erakunde bakarra. Proposamenak aldeko 11 boto (Euzko Abertzaleak, EH Bildu eta Bizkaiko Talde Popularra) eta abstentzino bi (Socialistas Vascos) izan ditu.

Horrez gain, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deutsie Barakaldoko Udalari, Eusko Jaurlaritzari eta Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoari, kutsadura eragin daikien foku kutsatzaile guztiak eta isurpen, aireratze eta galera guztiek eragindako kutsadura guztia suntsitu daien, uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretuak agintzen dauen moduan.

Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenari EH Bilduk aurkeztutako gehikuntzazko bigarren zuzenketa-eskearen bitartez, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deutsie Barakaldoko Udalari, Eusko Jaurlaritzari eta Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoari, urtegia oso-osorik garbitu daien, hondakinak barru, analitiken emaitzak holan adierazoten daben kasu guztietan.

Horrez ganera, Batzar Nagusiek eskaria egin dabe, erakunde horreek, gai horren inguruan aurrera eroaten diran erabagi eta jarduketa guztiei buruzko aldizkako informazino zehatza zuzendu deien halan eskatzen daben udal taldeei, talde ekologistei eta bizilagunen erkidegoei eta talde sozialei.

Bere zuzenketa eske biak onartu diranez, EH Bilduk baztertu egin dau, Barakaldoko hainbat biztanle erkidegok ur hornidura saretik deskonekteteari buruz aurkeztu dituan eskariak bideratzeko aurkeztu behar eban Arauz Besteko Proposamena.

María Presa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, Arauz Besteko Proposamenaren helburua “biztanleen nasaitasuna bermatzea da”.

Isaac Fernández Socialistas Vascos taldeko batzordekideak, Arauz Besteko Proposamena kritikau dau, bertan “usteez egiten dalako berba”. Bere parte hartzean, Loiolako urtegiko uraren kalidade ona abaletan daben hainbat txosten irakurri ditu, horreen artean, urtegian dagozan hexaklorozikIohexano (HCH) kontzentrazino ebaluazinoari buruzko txosten bat, Uraren Euskal Agentziak, URA-k, egindakoa, eta Barakaldoko herritarrek jasoten daben horniduraren kalidadeari buruzko berme guztiak eskintzen dituana.

Fernándezek, bere abstentzinoa justifiketako orduan, "gaur egun egiten dan gauza bat egitea eskatzeak ez daukala zentzunik" adierazo dau. Ganera, Barakaldoko Udala, deitzen jakon bilera guztietara joaten dala gehitu dau, Arauz Besteko Proposamenak eskatzen dauen moduan.

## BEHATOKIEN ETA BEGIRALEKUEN EGOERAREN AZTERLANA

Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordeak aho batez onartu dau Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Batzarrek eskaerea egin deioen Bizkaiko Foru Aldundiari, Bizkaian dagozan behatokien eta ikuslekuen egoerearen inguruko azterlana egin daian eta, kasu bakotxean eskumenak eta ardurak dituen erakundeen eta administrazinoen artean mantentze lan eta balioan jarte egokia bultzatu daian".

Arturo Aldecoa proposamena aurkeztu dauen taldearen bozeroaleak proposamena justifikau dau, "Foru Aldundia dalako behatoki eta ikusleku horreen egoerea baloretako eta horreen ardurea daukien administrazinoen eta erakundeen esfortzuak batzeko beharra ondoen egin daikean erakundea, elementu horreen balioan jarte osoa lortzeko".

## BILBOKO ITSASADARREKO BEGIRALEKUA LARRAÑETAN (TRAPAGA)

Batzorde berean, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako Arauz Besteko beste Proposamen bat be onartu da. Bertan, Batzarrek eskaerea egiten deutsie Foru Aldundiari, Larrañetan (Trapaga) dagoan Asturiastarraren Zelaiaren ondoko behatokia egokitzeari eta, zugatzak, bidexkak, umeentzako jolasak… izango dituan aisiarako gunea sortzeari buruzko azterlana egin daian, etorkizunean, Udalagaz eta herritarren alkarteakaz lortu beharreko akordioak lortu ostean, balioan jarte egokia bultzatzeko. Proposamenak aldeko 10 boto jaso ditu (Euzko Abertzaleak, Socialistas Vascos eta Bizkaiko Talde Popularra) eta EH Bildu taldearen abstentzinoa. EH Bilduko bozeroaleak bere abstentzinoa justifikau dau, ez dalako harremanik bultzatzen inguruko biztanleakaz proiektuak aurrera aterateko, eta proiektu horreen artean Golf Zelaia edo Meatzaritzako Ospitalea aitatu ditu.

## OINEZKOENTZAKO PASEALEKUA ZUGAZTIETAN

Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru diputatua Bizkaiko Talde Popularraren eskariz agertu da Batzordearen aurrean, Trapagan dagoan Zugaztieta inguruko Parkotxa, Ostion eta Blondis pozuen artean oinezkoentzako oholezko pasealekuak egiten ari diran beharrak azaltzeko.

Madariagak azaldu dauenez, eskolako egunetan joaten da jente gehien parkera, inguru horretatik pasealdi didaktikoak egiten dituen ikasle taldeak, batez be, baina jaiegunetan be jasoten ditu bisitariak. Ingurumeneko Foru diputatuak azaldu dauenez, 800 metroko distantzia gaindituko da, hormigoizko zapaten gainean jarritako egur landuzko oholezko zoladura ez labangarrizko igarobide biren bitartez. Beharrak uztailean bukatuko dira, eta panel didaktikoakaz osatuko dira", gehitu dau.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# El Parlamento de Bizkaia insta al Ayuntamiento de Barakaldo a no utilizar el agua del pantano de Loiola cuando no se cumplan las garantías sobre su idoneidad para el consumo

En Bilbao, a 30 de junio de 2014.

La comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales reunida hoy lunes, 30 de junio, ha aprobado una proposición No de Norma presentada por el grupo Nacionalistas Vascos (PNV), con dos enmiendas propuestas por el grupo EH Bildu, en la que se insta al Ayuntamiento de Barakaldo a que aplique el principio de precaución y garantice la no utilización del agua del pantano de Loiola, ya que es la única institución que tiene potestad para hacerlo. La proposición ha contado con 11 votos a favor (Nacionalistas Vascos, EH Bildu y grupo Popular Vizcaíno) y 2 abstenciones (Socialistas Vascos).

Asimismo, las Juntas Generales de Bizkaia instan al Ayuntamiento de Barakaldo, al Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, a eliminar los focos contaminantes y toda la contaminación generada por vertidos, emisiones y pérdidas que puedan tener lugar tal y como establece el RD 1/2001 de 20 de julio.

Por la segunda enmienda de adición presentada por EH Bildu a la proposición No de Norma del Grupo Nacionalistas Vascos, las Juntas Generales instan al Ayuntamiento de Barakaldo, al Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia a la limpieza integral del embalse, incluyendo los sedimentos, siempre y cuando los resultados de las analíticas así lo indiquen.

Asimismo, el Parlamento de Bizkaia reclama a estas instituciones que faciliten información periódica y detallada a los grupos municipales, ecologistas y entidades vecinales y sociales que lo soliciten, de todas las decisiones y actuaciones que se lleven a cabo al respecto.

Al aceptarse sus dos enmiendas, el grupo EH Bildu ha retirado su proposición No de Norma que daba traslado a peticiones presentadas por diversas asociaciones vecinales de Barakaldo referidas a la desconexión de la red de abastecimiento de agua.

La portavoz de Nacionalistas Vascos, María Presa, ha argumentado que la proposición No de Norma presentada por su grupo y aprobada por la Cámara vizcaína “busca garantizar la tranquilidad de los vecinos”.

El apoderado del grupo Socialistas Vascos, Isaac Fernández, ha criticado la proposición No de Norma por que en la misma “se está hablando de suposiciones”. En su intervención ha leído diversos informes que avalan la buena calidad del agua del pantano de Loiola, entre ellos un informe sobre la evaluación de las concentraciones de hexaclorociclohexano (HCH) en el embalse, elaborado por la Agencia Vasca del Agua URA, que ofrece todas las garantías sobre la calidad del suministro que reciben los vecinos de Barakaldo.

Fernández ha justificado su abstención al señalar que "no tiene sentido instar a hacer algo que ya se hace en la actualidad". Asimismo ha explicado que el Ayuntamiento de Barakaldo ya acude a todas las reuniones a las que se le convoca, tal como solicita la proposición No de Norma.

ESTUDIO DEL ESTADO DE LOS MIRADORES Y BALCONES

La comisión de Agricultura y Medio Ambiente ha aprobado por unanimidad la proposición No de Norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) por la que las Juntas instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que realice un estudio de la situación de los balcones y miradores existentes en Bizkaia y que permiten contemplar sus valores paisajísticos, naturales, geológicos, urbanos, monumentales, culturales e históricos, e impulse ante las entidades y administraciones responsables en cada caso su adecuado mantenimiento y puesta en valor.

Arturo Aldecoa, representante del grupo proponente, ha justificado la iniciativa porque "la Diputación Foral es la administración que mejor puede realizar la tarea de valorar el estado de estos miradores y balcones y aunar los esfuerzos de las administraciones y entidades responsables de los mismos para lograr su plena puesta en valor".

MIRADOR DE LA RÍA DE BILBAO EN LARREINETA (TRAPAGARAN)

En la misma comisión, se ha aprobado una proposición No de Norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno por el que las Juntas instan a la Diputación a estudiar la adecuación del mirador existente junto a la Campa del Asturiano, en Larreineta (Trapaga), así como la creación de una zona de ocio y esparcimiento con arbolado, senderos, juegos infantiles, etc., a fin de promover en el futuro mediante los necesarios acuerdos con el Ayuntamiento y las asociaciones de vecinos su adecuada puesta en valor. Esta proposición ha contado con 10 votos favorables (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Popular Vizcaíno) y con la abstención de EH Bildu. El portavoz de EH Bildu, ha justificado su abstención en que en otras ocasiones no se entablan contactos con los vecinos de la zona para llevar a cabo proyectos, entre los que ha citado el Campo de Golf o el Hospital Minero.

PASEO PEATONAL EN LA ARBOLEDA

El Diputado Foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido a petición del Grupo Popular Vizcaíno para explicar las obras que se están realizando en el entorno de los pozos Parkotxa, Ostión y Biondis en el área de La Arboleda.

Madariaga ha explicado que la mayor afluencia al parque tiene lugar los días lectivos, con grupos de estudiantes que realizan paseos didácticos por la zona, que también recibe visitantes durante los días festivos. El Diputado Foral de Medio Ambiente ha señalado que con las obras que se están ejecutando se salva una distancia de 800 metros, a través de dos pasarelas de madera tratada sobre zapatas de hormigón, con pavimento atablado antideslizante. "La obra se finalizará en julio y se completará con paneles didácticos", ha señalado.